

Isabel Celaá Anderea, Hezkuntza Sailburua,

Langile Ikastola ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak , joan den abenduaren 16an bilduta, zuek zuzentzen duzun arloari dagokion kexa hau aurkeztea erabaki du:

Hezkuntza Sailak Irakasle funtzionarioen akordio berrian babestuta plantillak murriztu eta ordezkapenak atzeratzeko hartu duen erabakiak gure ikastetxean funtzionamendu arazoak sortu ditu eta aurrerantzean ere sortzen jarraituko duela aurreikusten dugu.

Zehazki, zentroaren funtzionamendu egokirako beharko genituzkeen baina irakasle bat gutxiago dugu aurten, ordezkapenak direla eta **276** irakastordu galdu ditugu eta gela horien zaintza dela eta gainerako irakasleek laguntza behar duten ikasleak indartzeko, proiektu ezberdinetarako nahiz beraien eskolak prestatzeko orduak ezin izan dituzte erabili. Honek, noski, ikasleek behar duten arreta eta jarraipena, proiektuen garapena eta, orokorrean, hezkuntzaren kalitatea kaltetzen du, irakasleenganako presioa eta lan-karga gehituz.

Gutziz kontraesankorrak eta onartezinak iruditzen zaizkigu zuen sailak ezarri dizkigun murrizketak. Hori dela eta egoera birbideratu, ratioak hobetuz plantillak egoki osatu eta ordezkapenak lehen egunetik egitea eskatzen dizuegu.

Argi utzi nahi dugu, honelako erabaki eta jokabideek, irakasleen lan-baldintzak okertzearekin batera Irakaskuntza Publikoaren eta Hezkuntza Kalitatearen aurka egiten dutela. Egoera bideratu eta oraindik ere Irakaskuntza Publikoa indartzeko aukera dugulako hartutako neurriak erretiratu eta bidea zuzen dezazuen eskatzen dizuegu.

Adeitasunez, **Langile ikastolako OOGa**